

# HIZKUNTZEN ERABILERA URKIPE HERRI ESKOLAN

Jolastokiko hizkuntzen  
erabileraren neurketa



Itsasondon,  
2022ko apirilaren 7an

# HIZKUNTZEN ERABILERA URKIPE ESKOLAN

## 2022KO MARTXOKO NEURKETA


*Hedatu* egitasmoaren bidez egiten duen lanaren barruan, eskolako hizkuntza erabilera neurtzeko aukera eman dio UEMAk Itsasondoko Urkipe ikastetxeari. Landa lana hezitzaileek egin dute, jolastokiko orduak baliatuz. Kaleko neurketa egiteko ereduarekin bildu dituzte datuak: ikasleei ezer esan gabe, haien jarduna behatu dute: zein hizkuntzatan ari diren, zein mailatan dauden eta zein den itxuraz haien sexua.

### LAGINA

Guztira 367 elkarrizketa behatu dira, eta, horien bidez, 1.033 solaskideren jarduna. Haur Hezkuntzako bigarren mailatik Lehen Hezkuntzako seigarren mailara arteko ikasleen jarduna behatu da. Jasotako lagina handia da maila horietako ikasleen jarduna aztertzeko. Neurketa 2022ko martxoaren 21etik 25era egin da, astebetez.

### ERABILERA OROKORRA

Adin guztiak kontuan hartzen badira, euskara da ikasleen hizkuntza nagusia: %60,8k erabiltzen dute. Gaztelaniaren erabilera %38koa da. Beste hizkuntza batzuetan entzun dira ikasleen %1,2.




Bestalde, aipatu behar da ele bietako elkarrizketak ere entzun direla. Horiek euskarako eta gaztelaniako kopuruetan, bietan, zenbatu dira. Dena den, datu gisa, 367 elkarrizketatik 32 entzun dira ele bietan; elkarrizketa guztien %8,7. 32 elkarrizketa horietako erdietan irakasleak parte hartu du, eta ulertzen da irakasleak hartu duela elkarrizketa euskarara bideratzeko papera.

## SEXUAREN ARABERAKO ERABILERA

Euskararen erabileran badago aldea ikasleen sexuaren arabera: nesken erabilera handiagoa da (%67,3) mutilena baino (%56,9). Itsasondon 2021eko udaberrian eginiko kaleko neurketetan ere agertu zen alde hori, horren nabarmena ez bada ere: emakumeen %73k egin zuten euskaraz, eta gizonen %67k.


Bestalde, beste hizkuntzen erabilera ere ugariagoa da nesken artean. Horrek dakarrena da gizonek emakumeek baino 12,6 puntu gehiago egitea gaztelaniaz.



## MAILAREN ARABERAKO ERABILERA

Ikasmaila batetik bestera alde handia dago hizkuntzen erabileran. LH3-4 eta LH5-6 zikloetan egiten da gehien euskaraz; eta HH2 zein HH5 mailetan, gutxien. Diferentzia handiak daude talde batetik bestera, eta ez dago joera jakin bat: gorabeheratsua da egoera. Dena den, ondorioztatu daitekeena da LHko ikasleek, oro har, gehiago egiten dutela euskaraz, HHkoek baino.

Horrez gain, euskara eta gaztelania ez diren beste hizkuntzak HH2n eta HH3n dute presentzia. Hortik gorako mailetan ez da entzun elkarrizketarik beste hizkuntzetan.



## ONDORIOAK

Jolastokiko erabilera neurtzeak modua jartzen du eskolako hizkuntza erabilerari argazki bat ateratzeko, inpresioetatik harago erabilerari buruzko datuak izateko. Itsasondoko Urkipe ikastetxean egindako neurketak erakutsi du euskara dela hizkuntza nagusia jolastokian, baina diferentzia esanguratsuak daude.

Lehen diferentziak sexuarekin daude lotuta: nesken erabilera handiagoa da mutilena baino. Ohiko joera da hori kaleko neurketetan. UEMAk 2021ean udalerrri euskaldunetan egindako kale neurketetan ere agertu da diferentzia hori, eta, hain zuzen, alderik handiena umeetan eta gazteetan dago. Azken urteetan ikerketa ugariaren aztergai izan da alde hori.

Ikasmaila batetik bestera ere alde nabarmena dago euskararen erabileran. Euskararen erabilera ez da lineala, alegia, gorabeherak daude adinez adin. Dena den, argazki orokorra hartuz gero, LHkoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak. Horren irakurketa bat izan daiteke haurrek, ikasketa prozesuko lehen zikloetan, etxeko hizkuntza erabiltzen dutela eskolan ere. Ondoren, euskara bere egiten dute ikasle guztiek, eta presentzia areagotzen doa.

Hala ere, aintzat hartu beharrekoa da ikastalde bakoitzeko errealitate soziolinguistikoa zein den: ikasleen lehen hizkuntza, haien arteko harreman hizkuntza, taldeko liderren hizkuntza... ikasgela bakoitza mundu bat izan daiteke, eta bakoitza aztertu beharko litzateke.

Joera horrek erakutsiko luke muga bat: eskolak asko dezake, baina ez guztia. Inguruaren eragina nabarmena da erabileran, eta, ikasleak koskortzen doazen eran, are handiagoa —hala erakusten dute Arrue ikerketak eta beste azterketa batzuek ere—. Garrantzitsua da, beraz, eskolaz harago, hezkuntza komunitate osoan eragitea: gurasoak, udala, eragileak...

Interesgarria litzateke egindako neurketaren emaitzak hezkuntza komunitatean zabaltzea eta lantzea.